BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

287

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 19koa, Herrizaingoko sailburuarena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agentearen eta 1. mailako Agentearen Kategorietan zein Ikuskapen Eskalako Ofizialordearen eta Ofizialaren Kategorietan sartzeko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko merezimenduen baterako eta banakako baremoa onesten duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 65.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehiaketa da lanpostuak betetzeko sistema normala. Bertan deialdiak ezarritako merezimenduen balioa neurtuko da. Nolanahi ere, deialdiak arau horrek ezartzen duen gutxieneko edukia bildu beharko du.

Alde horretatik eta aurrekoa garatuta, abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak onetsitako Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudiak 9. artikuluan ezartzen du lehiaketetan eskainitako lanpostuen ezaugarriei dagozkien merezimenduak baloratu beharko direla, eta haiek nola baloratu deialdian bertan adieraziko dela. Bereziki balioetsiko dira beren-beregi adierazten direnak, arau horretan adierazitako irizpideen arabera.

Dekretu hori martxoaren 6ko 42/2001 Dekretuak, otsailaren 3ko 20/2004 Dekretuak, 231/2009 Dekretuak eta maiatzaren 17ko 94/2011 Dekretuak aldatu dute ondoren. Azken dekretu horrek araudiaren lehenengo xedapen gehigarria aldatzen du, haren oraingo testuak agindu hau justifikatzen duela, bereziki Ertzaintzaren behe mailako eskaletan eta kategorietan mugikortasun horizontala edo geografikoa kidegoko lanpostuen eskalako igoeraren aurrean nagusitzen dela oinarri hartuta, oinarrizko lanpostuen konfigurazio bereizi gabea dela-eta.

Horren ondorioz, eta etorkizunean lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzeko egin daitekeen deialdi baten aurreko fase gisa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 103. artikuluan aurreikusten den Mahaiak 2011ko abenduaren 12an egindako bileran azterketa eta negoziazioa egin eta Ertzaintzaren Kontseiluak esandakoa entzun ondoren, eta, 94/2011 Dekretuak emandako testuari jarraituz, 388/1998 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak emandako gaikuntzarekin eta 303/2010 Dekretuak aldatutako Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko 471/2009 Dekretuak emandako eskumenekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Merezimendu-baremoaren onespena.

Agindu honetan agertzen den eta Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agentearen eta 1. mailako Agentearen Kategorietan zein Ikuskapen Eskalako Ofizialordearen eta Ofizialaren Kategorietan sartzeko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko aplikatuko den baterako eta banakako baremoa onetsi da, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko indarreko Araudian ezarri bezala.

2. artikulua.– Baremoko kontzeptu ezberdinen balio osoa.

100 puntuk osatuko dute merezimendu-baremoko kontzeptu ezberdinen balio osoa; honako proportzioaren arabera eta adierazitako gehienezko puntuazioarekin banatuko dira:

a) Antzinatasuna: 65 puntu.

b) Gauzatutako lana: 25 puntu.

c) Prestakuntza– eta hobekuntza-ikastaroak: 3 puntu.

d) Titulu eta gradu akademikoak: 4 puntu.

e) Zorion-hitz eta esker on profesionalak: 3 puntu.

3. artikulua.– Antzinatasuna.

1.– Ertzaintzan antzinatasunaren kontzeptuaren kontaketa hasiera data, Ertzaintzan sartzeko praktika-aldiaren hasiera izango da eta jarraian adierazten den baremo partzialaren arabera balioetsiko da. Senitartekoak zaintzeko lan-utzialdiko, ordezkaritza-organo publikoetarako hauteskundeetan hautagai aurkezteko norbere borondatezko lan-utzialdiko, genero-indarkeria dela-eta hartutako lan-utzialdiko, derrigorrezko lan-utzialdiko eta zerbitzu bereziko administrazio-egoerak osorik zenbatuko dira. Jarduneko zerbitzuko edo bigarren jarduerako egoera aldatzen ez duten lizentziek eta baimenek ere ez dute antzinatasun-neurketa eteten.

Hutsegite arinengatiko zeregin-gabetzeak ere ez du antzinatasun galerarik eragingo.

2.– Ertzaintzan emandako zerbitzuak 65 punturekin balioetsiko dira, gehienez, hurrengo baremo partzialaren arabera:

Hilabeteak	Puntuak
349 baino gehiago	65
340 eta 349 artean	64,9
330 eta 339 artean	64,8
320 eta 329 artean	64,7
310 eta 319 artean	64,6
300 eta 309 artean	64,5
280 eta 299 artean	64,4
270 eta 279 artean	64,3
250 eta 269 artean	64,2
236 eta 249 artean	59
221 eta 235 artean	53
216 eta 220 artean	47
206 eta 215 artean	41
196 eta 205 artean	35
181 eta 195 artean	29
121 eta 180 artean	23
111 eta 120 artean	19
91 eta 110 artean	16
61 eta 90 artean	14
51 eta 60 artean	10
41 eta 50 artean	6
11 eta 40 artean	3

4. artikulua.– Gauzatutako lana.

1.– Gauzatutako lana hautagaia kasuan kasuko kategorian izendatu zen eguna erreferentziatzat hartuta balioetsiko da, ondorengo arauen arabera. Zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran gauzatutako lana balioetsiko da, eta, beraz, ez dira zenbatuko aipatutakoak ez diren administrazio-egoeretako aldiak.

2.– Gauzatutako lana balioesteko oro har ezartzen diren arauak OIKI I edo OIKI II espezialitatearen betekizuna edo, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzen duen 2004ko maiatzaren 5eko Aginduaren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, lehen horrek zeukan baliokidea duten lanpostuak bete behar direnean aplikatuko dira.

3.– Ez dira gauzatutako lantzat hartuko norberaren gauzetarako baimenaren aldiak, lanpostuak betetzeko aurreko prozesu orokorretik aurrera zenbatutakoak, zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako administrazio-egoeretan.

4.– Betetzeko prozesuaren deialdiaren aurreko 15 urteetan Ertzaintzan gauzatutako lana balioetsiko da, gehienez 25 puntu lortu arte, honako baremo partzialaren arabera:

a) Lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategorian egindako lana: 0,14 puntu hilabete osoko.

b) Lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategoria baino baxuagoan egindako lana: 0,05 puntu hilabete osoko.

c) Eskalarako gordetako lanpostuak eskatzen direnean, 0,14 punturekin baloratuko da aipatutako eskalako edozein mailatan lan egindako hilabete bakoitza.

5.– Lehiakideak egun daukan kategoria baino altuagoan egindako lana, azken horren arabera baloratuko da.

5. artikulua.– Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

1.– Prestakuntza– eta hobekuntza-ikastaroen idazpuruan Herrizaingo Sailak programatutako espezializazio ikastaroak baino ez dira balioetsiko, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera; ikastaro bakoitzari emandako puntuazioa metatu egin daiteke ezarritako gehiengora heldu arte, eta inolaz ere ezingo dira baloratu deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintza moduan eskatzen diren ikastaroak.

2.– Herrizaingo Sailak programaturiko espezializazio ikastaro hauek balioetsiko dira, gehienez ere 3 puntu lortu arte, ondoko baremoa kontuan hartuta:

– Esku-hartze ikastaroa: puntu 1.
– Brigada Mugikor ikastaroa: puntu 1.
– Eskolta ikastaroa: puntu 1.
– Indargabetze ikastaroa: puntu 1.
– Txakur-gidari ikastaroa: puntu 1.
– OIKI I edo OIKI II ikastaroa: puntu 1.
– Bide Segurtasunari buruzko ikastaroa: puntu 1.
– Helikopteroko pilotuaren ikastaroa: puntu 1.
– Argiketa ikastaroa: 0,5 puntu.
– Trafiko ikastaroa: 0,5 puntu.

6. artikulua.– Titulu eta gradu akademikoak:

1.– Titulu akademiko ofizialak ondoren xedatutakoaren arabera puntuatuko dira, eta inolaz ere ezingo dira baloratu deialdian parte hartzeko kategorian sartzeko nahitaezko baldintza moduan eskatzen direnak. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Erdi Mailako Unibertsitate-tituluaren baliokidetzat hartuko da lizentziako hiru ikasturte osorik gainditu izana.

2.– Ez dira baloratuko goragoko kategoria batean sartzeko gainditu beharreko tituluak, baina, hala denean, hautagaiek dituzten hainbat titulu batu ahalko dira, ezarritako muga errespetatuta.

3.– Titulu akademiko ofizialek gehienez 4 puntuko balioespena izango dute, honako baremo partzialaren arabera:

a) Administrazioko A taldeko A1 azpitaldean sartzeko beharrezko tituluak, gradu ondoko titulua eta doktoretza titulua: 3 puntu.

b) Administrazioko A taldeko A2 azpitaldean sartzeko beharrezko tituluak: 2 puntu.

c) C taldeko C1 azpitaldean sartzeko beharrezko tituluak, kategorian bertan sartzeko betekizuna ez denean: 0,4 puntu.

4.– Ez dira baloratuko sartzeko betekizun gisa ezartzen diren titulu akademikoek baino maila baxuagoa dutenak.

7. artikulua.– Zorion-hitz eta esker on profesionalak.

1.– Ertzaintzako langileei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzko apirilaren 27ko 71/2004 Dekretuak aipatzen dituen zorion-hitz eta esker on profesionalak jarraian ezarritakoaren arabera balioetsiko dira.

2.– Ertzaintzako langileei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzko apirilaren 27ko 71/2004 Dekretuak aipatzen dituen zorion-hitz eta esker on profesionalak gehienez 3 punturekin balioetsiko dira, jarraian adierazitako banaketaren arabera:

– Polizia-lanaren esker onagatiko domina: 3 puntu.
– Polizia Zerbitzuengatiko ezaugarri gorridun diploma: 3 puntu.
– Polizia Zerbitzuengatiko ezaugarri zuridun diploma: 2 puntu.
– Zorion-hitzak: 0,5 puntu.

8. artikulua.– Euskarazko jakintzaren balioespena.

Euskaraz jakitea merezimendu gisa balioetsiko da lanpostuaren baldintza moduan eskatzen ez denean, eta balioespen hori prozesuan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko bostekoa izango da.

1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako, 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero: 5 puntu.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 19a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.